

Alde Zaharreko zenbait kaleren inguruan ari gara hurrengo testuetan. Zein toki dira? Asmatu ostean, esan ezazu testuetan agertzen diren gainontzeko toponimoek erreferentzia zeri egiten dioten esan ezazu.

- a. Torronterotik gora egiten du, Eskolakalera jotzeraino. Kaleari, izena Talako Andra Maria elizaren izenetik datorkio, desagertutako eliza hartara jotzen zuelako. Seguruenik, antzina, hiribilduko kale nagusia izan zen, gaur ere alde zaharreko kalerik zabalena da eta.
- b. Goiko plazan egon zen, Andra Mari eliza dagoen lekuan. 1670ean gotorleku gisa deskribatzen da.
- c. Goiko plazatik San Migel plazatxora jeisten da. XVI. eta XVII. mendeetan Sagarkale agertzen da kale honi lotuta.
- d. Goiko plazatik Torronterora egiten du. Antzina kale honek Torrontero izena zeukan, hala agertzen du, esate baterako, 1820ko mapak.
- e. San Juan portaletik ekialdera egiten du, Andra Mari kalera jo arte. Azken aldiak Irakaskintza izan du izena, baina 1897ra arte Hospital izena zegokion, hantxe egon baitzen ospitalea.